

Txiki!tt



2015eko ekaina

153 zbk.



**Oporrak...
gozatu!**

↑ xis leak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena




Jaimito, ingeleseko klasean
dago eta esaten dio andereñoak:
– Jaimito, zelan esaten da txakurra ingelesez?
– Oso erreza: “dog”.
– Eta al baitaria?
– Dogtor.
Ane Miren Moro



Bi azeituna mendian zebiltzan eta
bat lurrera jausten da.
Minarengatik kexatzen hasi zen...
– Aiii ze mina! – Uste dut hezur bat apurtu dudala!
Besteak igotzen jarraitzen du eta esaten dio:
– Ezinezkoa da! Antxoaz beteta zaude!!
Nahia Galan



Ixteko ordua pasa ondoren, tipo bat
kanposantu barruan geratzen da irten ezinik.
Irteerara abiatzen da, hesiaren beste aldean lurperatzailea
ikusten du eta aho beteta garrasi egiten dio:
– Utzidazu irteten!
Lurperatzaileak erantzuten dio:
– Aizu! Ez esan txorradarik eta itzul zaitetz hilobira!
Ander Nieto





Egun batean, hiru ume: Tontoa, Inor ez eta Juanito, ibai baten ondoan zeuden. Eta Juanito, ibaira jausi zen.

Horregatik, Tontoa, poliziarengana joan zen eta esan zion:

– Juanito ibaira jausi da eta Inor Ez da joan beraren bila.

Eta poliziak erantzun zion:

– Zu tontoa zara?

Eta Tontoak erantzuten dio.

– Bai ni tontoa naiz.

Ainara Landa



Zergaitik daude dantzariak beti puntetan? Ez da errezagoa dantzari haundiagoak hartzea?

Ainhoa Bizkarra



JAJAJA
JAJAJA

Andereñoak galdetzen dio

Jaimitori:

– Zenbat hezur ditugu gorputzean?

– 100 hezur

– Ez ahal nizun esan 99 hezur genituela?

– Bai baina gaur hezur bat irentsi dut!

Malen Monedero

Jaimito gelara doa eta irakasleak esaten dio:

– Non dago zure matematikako koaderno?

Jaimitok erantzuten dio:

– Medikoan utzi dut, problema gehiegi ditu.

Izaro Altuna



Denborapasak

Asmakizunak



Alex Espiga

KATUA
LEHOIA
ELEFANTEA
TIGREA
JIRAFa

Hizki-zopa

Q	E	R	T	U	I	O	B	D	G	J	X	G	X	G	U	D	U
A	G	K	A	T	U	A	H	J	F	J	L	O	F	H	N	L	D
L	J	G	H	B	F	B	J	F	D	T	X	A	K	U	R	R	A
J	D	G	X	N	J	J	H	G	I	F	D	H	S	H	D	B	C
H	J	H	G	Z	C	I	B	G	N	D	H	M	G	B	M	K	C
D	G	H	N	X	B	K	R	L	B	L	E	H	O	I	A	B	H
F	L	X	B	F	N	E	C	A	B	X	H	Z	G	C	X	B	Z
S	D	G	H	K	A	F	G	D	F	D	H	J	X	G	B	H	Z
E	L	E	F	A	N	T	E	A	D	A	H	F	H	J	K	N	C

Luar Garcia de Amezaga

Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Unai Igarza Leturiondo** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!



Hizki-salda

- HOSTOA
- ZUHAITZA
- ADARRA
- ENBORRA
- TXORIA
- EGUZKIA
- SUSTRAIAK
- BASURDEA
- IBAIA
- UNTZIA
- EGUZKIA

F	K	D	P	Q	Y	Q	Y	U	V	H	A	X	O	W	X	X	V	P	X	D	V	K	H
T	K	Z	N	A	E	F	X	R	A	Ñ	P	J	M	A	X	R	P	S	T	S	Y	P	Z
I	Q	Y	N	G	N	J	I	S	X	T	M	Q	R	F	N	X	F	N	Z	O	V	X	M
H	A	K	W	N	G	F	F	Q	Y	B	F	R	G	Y	A	G	I	D	O	U	G	J	Ñ
C	T	J	O	S	U	V	A	A	D	Q	O	M	C	M	W	J	Z	Y	O	D	Z	L	B
W	C	V	V	L	N	W	Z	G	R	B	K	Q	W	H	I	B	A	I	A	T	H	Y	W
G	U	L	A	H	Y	T	P	T	N	N	Y	G	R	F	K	P	W	J	W	L	V	Y	F
L	G	A	H	Y	I	R	G	E	N	T	A	R	D	R	O	M	I	L	T	U	R	Ñ	E
M	Q	X	B	A	S	U	R	D	E	A	A	G	P	J	O	F	P	S	U	F	P	O	F
N	S	Q	H	T	Ñ	V	J	A	B	V	O	T	C	S	B	T	C	L	K	A	G	U	Ñ
H	X	U	Y	P	F	Q	U	A	S	W	C	P	J	B	O	I	U	N	D	V	Ñ	W	B
E	Z	N	Ñ	K	B	T	Q	Y	I	Ñ	G	S	I	W	B	V	Y	I	Y	Ñ	Q	I	I
R	Y	W	U	O	A	R	H	J	W	P	O	A	Q	F	G	O	Ñ	Y	I	K	T	L	T
W	S	A	Y	A	H	K	X	F	W	L	B	P	Y	K	H	V	K	Ñ	P	N	R	A	E
E	S	D	Q	E	K	T	Q	F	E	Y	Ñ	M	O	T	M	J	C	K	V	Y	C	T	U
W	G	Y	V	W	M	H	Y	S	V	I	F	Q	G	K	I	K	A	I	R	O	X	T	L
H	T	U	T	W	D	X	F	U	N	T	Z	I	A	C	M	F	K	A	R	R	A	D	A
W	R	X	Z	D	Ñ	B	H	S	W	L	L	Ñ	M	W	J	A	G	Z	K	L	Y	D	L
C	X	U	Z	K	N	C	W	T	H	W	K	F	V	A	M	C	D	G	P	M	V	M	H
V	T	S	J	X	I	Q	O	R	K	Q	G	M	I	L	Q	G	M	R	S	A	Q	X	T
J	Ñ	Y	G	R	X	A	G	A	O	T	S	O	H	C	M	T	Y	Q	P	K	V	R	L
K	O	R	H	F	N	H	B	I	B	P	O	W	Ñ	N	A	S	S	D	O	S	N	P	P
G	B	V	G	F	X	B	R	A	J	U	G	A	H	O	O	Ñ	T	D	D	T	G	Ñ	Q
R	B	G	O	U	J	W	E	K	W	F	Ñ	A	H	V	E	Ñ	J	C	T	G	U	N	D



**BIDALI ERANTZUNAK EKAINAK 30 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

Aurkitu 5 desberdintasun



Asma Malek

Asmatu esaldi ezkutua



A-	G-	M-	R-	X-
B-	H-	N-	S-	Y-
C-	I-	Ñ-	T-	Z-
D-	J-	O-	U-	
E-	K-	P-	V-	
F-	L-	Q-	W-	

Naiara Legarda

Oporretan, gozatzuz batera, zaindu!

Bai, bai, udako oporrak ate joka ditugu! Egun gutxi barru, eskola utzi, eta merezitako atsedena hartzeko unea iritsiko zaizue. Zuetako batzuk hondartzara joango zarete, beste batzuk igerilekura, eta mendira doanik ere egongo da. Horrelakoetan arreta behar duten hainbat gai laburbildu nahi izan ditugu orrialde honetan. Oporretan gozatu bai, baina kontuz!

Uretan hartu beharreko segurtasun-neurriak:

- ✿ Bainurako egokitu gabe dauden lekuetan (ibaiak, zingirak, lakuak...) kontuz ibili, eta ahal dela zaintzapean dauden tokietan bainatu.
- ✿ Ez zaitetze uretan zakarki sartu, batik bat eguzkia hartu edo jan eta gero.
- ✿ Bainatu aurretik digestioa egin, batez ere asko jan badugu. Bi ordu inguru itxarotea gomendatzen da.
- ✿ Ez egin saltorik buruz, sakonera zenbatekoa den ez dakizun lekuetan.
- ✿ Sorosleek adierazitakoari kasu egin.
- ✿ Banderen koloreari ere jaramon egin. Gorria bada ezin da bainatu, horia bada bainatu bai baina kontu handiz, eta berdean lasaiago baina gaitezke.



Eguzkipean ere tentuz:

- ✿ Eguzkitako krema etxetik irten aurretik eman. Eguzkitan jarri baino 30 minutu lehenago.
- ✿ Eguzkia pixkanaka eta neurrian hartu. Egun erdiko orduak ekidin.
- ✿ Uretatik irtetean ondo lehortu eta berriz ere eman krema.
- ✿ Eguzkitarako betaurrekoak erabili.
- ✿ Likido asko edan
- ✿ Burua babestu.



Ingurumena ere zaindu:

- ✿ Ez bota hondakinik uretara.
- ✿ Zaborrak dagokien ontzietan utzi.
- ✿ Ez erabili kristalezko ontzirik.
- ✿ Komunean egin beharrekoak komunean egin!





IZENA

Egoitz

ABIZENA

Txurruka

JAIOTERRIA

Eibar

JAIOTEGUNA

1991-04-30



- Itsasoa ala mendia? Itsasoa.

- Gozoa ala gazia? Gozoa.

- Uda ala negua? Uda.

- Jatekorik gustukoena? Okela.

- Umetan ikasgairik gustukoena? Eta gutxien gustatzen zitzaizuna? Gimnasia. Matematika.

- Kolorerik gustukoena? Urdina.

- Gustukoen dituzun kirolak? Igeriketa, surfa, bizikleta, korrika egitea...

- Animaliarik baduzu etxean? Ez.

- Txistek kontatu ala entzun? Entzun.

- Birziklatzen duzu? Bai.

- Telebistako saio bat?

Gu ta gutarrak eta El conquistador del fin del mundo.

- Egun perfektua?

Familia eta lagunekin egotea.

- Nola dago mundua?

Hobeto egon beharko litzateke.

- Zerk haserretzen zaitu? Injustiziak.

- Zerk poztu?

Nire ondokoak ondo daudela jakiteak.

- Oporretarako leku bat?

Mediterraneoko kosta.

- Euskera osasuntsu dago?

Bai, baina gehiago erabili beharko genuke.

- Zer egin daiteke euskera bultzatzeko?

Ikastetxe, irakasle eta gurasoen lana ezinbestekoa da. Txiki-txikitik erakutsi behar da zein garrantzitsua den gure hizkuntza.

- Opariak egin ala jaso? Biak.

- Gogoan duzun unerik pozgarriena?

El conquistador del fin del mundo saiora joan nintzenean.

- Rubiak ala morenak? Biak.

- Zarautz ala Mundaka? Zarautz.

EGOITZ TXURRUKA

Egoitz Txurruka, Txurru, Mallabiko surflaria. El conquistador del fin del mundo saioan parte hartzeagatik egin zen ezaguna. Erronkak oso gustuko dituen gaztea da. Gu ta gutarrak saioaren lehenengo edizioan kuadrilla jatorrena izatea lortu zuen, eta bigarrenean, gutarburu nagusizat aukeratu zuten ikus-entzuleek.



SAN ANDRES ikastetxearen 50. urteurrena bukatzeko, maiatzean Euskararen Astea ospatu genuen, eta gauza mordoa egin genituen: hormairudi handi bat jarri genuen ikasle guztien argazkiekin (euskeraren aldeko leloak idazteko lekuarekin), “Euskara da Euskal Herri” abestiarekin, eta edalontziekin lagunduta, oso koreografia polita egin genuen. Gure blogean ikus daiteke dena. Bertso-jaialdia ere egin genuen eta ikasleen gurasoak ikastetxera etorri ziren ipuinak kontatzera.

ALDATZE ikastetxeko 4. mailako ikasleek bertsolaritza-ekitaldian hartu zuten parte Coliseoan. “Zookogikora bisita” bertsoa aurkeztu zuten. LHko ikasleek Zarautzen pasa zituzten bi egun, elkarrekin ekintzak eginez, eta Eibar taldearen entrenamendua ikustera ere joan ziren. Azkenik, zapatuetako tailerretan “Txiki txef” saioa antolatu da arrakasta handiarekin.



AMAÑA Herri Ikastetxean Eskolako Festa ospatu genuen ekainaren 13an. Goizean ur-jolasak, herri kirolak eta puzgarriak izan genituen, eta arratsaldean dantzaldia DJ Nai-ren eskutik, Mugi Boogie! ikuskizunarekin. Oso ondo pasa genuen!

Horrez gainera, ekainaren 5ean, ikasturte amaierako jaialdia izan genuen Unibertsitate Laboraleko aretoan, antzerki- eta dantza-ikuskizunekin

ITURBURUKO 4. mailako ikasleek Gipuzkoako Urak kudeatzen duen Ibai-Eder urtegia bisitatu zuten. Urola ibaiaren urez osatzen da Azpeitian dagoen urtegi hori. Ikasleek zuzenean ezagutu zituzten urtegi baten funtzioa, zeregina eta instalazioak. Asko gozatu zuten egun horretan, eguraldia ere primerakoa izan zuten-eta.



URKIZU ikastetxeko 6. mailako ikasleak Lekarozera joan ziren, maiatzaren 25etik 29ra bitartean, ingeleseko barnetegira. Ekainaren 4an Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko umeak Oñatiko Txokolate Fabrikan izan ziren, eta ekainaren 21ean, Jolas Handiak izango ditugu eskolan bertan.

LA SALLE ikastetxean Bokazio Astea ospatu genuen maiatzaren 18tik 22ra eta aste osoan hainbat ekintza egin genituen geletan. Maiatzaren 30ean Izartxoren makro festa ospatu genuen eskolan eta aparra botatzen zuen kainoia, mariatxiak... izan genituen. Arrakasta izugarria izan zuen festak, 300 lagun baino gehiago elkartu ginen! Animo guztiei, azken txanpa besterik ez zaigu falta-eta!



KAIXO LAGUNOK! ARRATEKO ANDRA MARI in ere azken txanpan ari gara. Ekaineko ekintzak besterik ez zaizkigu falta. LHko 4. mailako ikasleak Guggenheimerara joango dira ekainaren 22an, egin duten proiektua museoan bertan ikustera.

Ekainaren 5ean Eskolako ikasle eta irakasle guztiok, 2 urtekoak izan ezik, Arratera joan ginen eta ikasturte hau ondo bukatzeko eta jaiei hasiera hobea emateko ekainaren 19an kurtso amaierako jaialditxoak izango dugu. Eta ikasturteari amaiera emateko, ekainaren 22an zinema izango dugu eskolako aretoan. Ondo pasa oporrak eta hurrengora arte!

ETXEKO ARTISTA



TXIRLA-OSKOLEZ APAINDUTAKO KUTXA

Eguraldi ona hasi da eta hondartzara joaten hasi gara honez gero. Aprobetxatu hondartzan topatzen dituzun txirla-oskolak, zapata kaxa arrunt bat kutxa polita bihurtzeko.

MATERIALA

- Zapata kaxa edo kartoizko kaxa arrunta
- Neurri desberdinetako txirla-oskolak
- Itsasgarria edo kola
- Tenperak
- Berniza
- Pintzelak

PAUSOAK

- Ondo garbitu erabiliko dituzun txirla-oskolak
- Kutxa margotu eta txirla-oskolak non ipiniko dituzun pentsatu.
- Erabaki duzun diseinuaren arabera itsatsi txirla-oskolak.
- Ondo itsatsita daudenean berniza bota eta lehortzen laga.



Ti-ta!

Superheroi txupatxusa

Txupatxus desberdinak nahi dituzu? Artaziak, kartulina, errotulagailuak, barrako kola eta zulagailua besterik ez duzu behar. Antifaza marraztu eta nahi duzun bezala margotu. Ondoren, artaziekin moztu eta txupatxusaren inguruan ipini barrako kolarekin atzekaldea itsatsiz. Ondoren kapa izango dena moztu eta gehien gustatzen zaizun moduan margotu. Goikaldean zulotxo egin zulagailuarekin eta txupatxusaren makilatik sartu. Hor duzu superheroi txupatxusa!





JOGURT-IZOZKIA

OSAGAIAK



Izozkia egiteko:

- ✓ 200 gr. harrotzeko esne- gain oso hotza.
- ✓ 3 jogurt greko oso hotzak.
- ✓ 120 gr. azukre.

Apaingarriak:

Fruta zatiak, gominolak, lakasitoak, zerealak...

PAUSOAK

- 1.- Esne-gaina azukrearekin nahastu eta harrotu arte irabiatu.
- 2.- Jogurtei ura kendu eta esne-gain harrotuarekin nahastu.
3. Izozkailuan sartu eta 2 orduz hozten laga.
- 4.- Izozkailutik atera eta berriz ere irabiatu ondoren beste ordu betez izozkailura sartu. Hau orduro egingo dugu beste hiru bider.
- 5.- Nahi dituzun beste apaingarri (fruta zatiak, fuitu lehorrak, txokola zatiak, zerealak, gominolak...) edalontzi txikietan ipini eta gehien gustatzen zaizun bezala apaindu.



SANDIA-POLOAK

OSAGAIAK

- ✓ Sandia
- ✓ Izozki- makiltxoak



PAUSOAK

- ✓ ADI! Sandia heldu batek moztu dezala, azala gogorra du eta, laban handia behar denez, arriskutsua da.
- ✓ Sandia tringelutan moztu eta azalean labanarekin izozki-makila sartzeko moduko zuloa egin.
- ✓ Sartu makiltxoak sandian eta hozkailuan sartu.
- ✓ Hor duzu bero edo egarrিতuta zaudenean jateko polo osasungarriak!



Ekainak 19, barixakua

20:00etan: Ballet Eibarrés taldearen dantza-emanaldia. Sarrera: 3€

Ekainak 20, zapatua

10:00tik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara: Simulazio-jokoen tailerrak (modelismoa, magia, eszenografia eta mahaiko jokoak) Untzagan.
19:00etan: "Andante" kale-antzerkia, Untzagan.

Ekainak 21, domeka

19:00etan: "Do Not Disturb-No Moletar" ikuskizuna, Untzagan.

Ekainak 22, astelehena

17:00etatik 20:00etara: Umeentzako puzgarriak Untzagan.
19:00etan: "Aire garbia" antzezlan.



Ekainak 23, martitzena

12:00etan: Untzagan, koadrilak bildu, eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino.
13:00ean: Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzagaraino.
13:30ean: Udaletxetik pregoia eta txupinazoa.
13:45tan: Udaletxean, Sanjuanetako kartel-lehiaketako sari-banaketa.
17:30ean: Untzagan koadrilak bildu eta kalejira fanfarrearekin zezen plazaraino.
18:00etan: Zesen plazan, koadrilen arteko jokoak.
18:00etan: Urkizutik Lizarrako erraldoi eta buruhandien kalejira, Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin.
19:00etan: Untzagatik Irulitxa fanfarrearekin kalejira.
19:00etan: Untzagan "La Conga" kale-antzerkia.
23:00etatik aurrera: Untzagan berbena Lisker taldearekin.
23:00etan: San Juan sua, Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia eta Queimada.
24:00etan: Untzagan San Juan Kantua eta Danborradaren Alardea.

Ekainak 24, eguaztena

18:00etan: "Siete" antzezlan Untzagan.
19:00etan: Urkizun, Umeen Danborradaren irteera.
20:30etan: Untzagan, Umeen Pregoa eta Alardea.
23:30ean: Soka Dantza Untzagan.
24:00etan: Suzko erroberak.

Ekainak 25, eguena

17:00etatik 20:00etara: "Zirkomotik" jolas-parkea Untzagan.
18:00etan: Untzagatik, kalejira Africa Baj Yay taldearekin.
19:00etan: Urkizutik Untzagaraino, kalejira.
19:00etan: Untzagan, "Ipar amerikar indigenak" umeentzako antzerkia.
19:30ean: Untzagan, Euskal Jaialdia (herri kirolak).
23:00etan: Suzko erroberak.



AGUR , AGUR!

Mirean Agurtzane deitzen naiz, baina izena moztu eta Agur deitzen didate guztiek. Neska txiki samarra naizelako izanen da.

Nire gurasoak bananduta daude. Asteazken zehar amarekin bizi naiz, eta asteburuetan txandaka...




ELSA ETA PARADISUA

Elsak bost urte zituenean entzun zuen lehen aldiz hitz hau: pa-ra –di-su. Gustatu zitzaion. Bost segundo baino ez zituen behar izan zer esan nahi zuen galdetzeko.


Hala ere, inork ez zion erantzunik eman...

Uda batean, baina, dama bitxi bat agertu zen Elsa eta Milia oporrak pasatzen ari ziren nekazaritza etxean....



HAIZEAREN IZENA

Nolanahi ere, Argiñe, badakit gauza hauek kontuz esatekoak direla, baina nik entzun dut zure aita ote den ama utzi duena, edo, horrelako zerbait. Zure aita bera lantegiko neskarekin...



OLAGARRO BAT BAINUONTZIAN


Aitak ez dakit ze plan daukan olagarroarentzat. Baina nik badaukat bat, maskotatzat hartzea. Gurasoek, ez dutela ez zakurrik ez katurik nahi esaten didate beti.

Baina ez didate olagarro bat hartzeko debekurik jarri....



EZ NAIZ BARAZKIJALEA ETA ZER?

Mikel barazkijalea da, gurasoek, haren hobe beharrez, horrela erabakita. Egun batean, ordea, aitita Xalbadorren baserrira joanda, aurreneko aldiz dastatuko du Mikelek txorixo puska bat, eta handik aurrera gauzak aldrebesten hasiko zaizkie, berari eta baita gurasoei ere.



LEIZE-ZULOKO MISTERIOA

Ainhoak 10 urte ditu eta ametsetan eginkizun zaila jaso du: Arrikruzko leize-zuloan dagoen lehoikumearen hezurdura bilatu eta amaren ondora eramatea, haren babesean egon dadin beti.....



KAXA BELTZ LARANJAK

Bai ba! Hegazkinek dituztenei kaxa beltz deritzen arren, benetan horiak, laranja edo gorriak izaten dira.



ERLEEK KAFE GEHIAGO EKOIZTEN LAGUNTZEN DUTE

Erleek, eskuan hartuz gero, heldu eta nahikotxo min egiten dute; ezta, argizaria eta erregina-jelea ere egiten dute. Eta, kafe-uzta areagotzen ere laguntzen dute.



TXIP-AK PERTSONENTZAT

Jakingo duzu txakurrek euren eta jabeen datuak dituen txipa eraman beharra dutela, ezta? Pelikuletan pertsoneri ere jartzen dizkiete, baina, orain, errealitatean ere erabiltzen hasi dira.



SINESGAITZA BAINA EGIA: HARTZ ZURIAK AZAL BELTZA DU!

Bere ilea mozten utziko ligukeen hartz zuria aurkituko bagenu, ezusteko handia emango liguke: ile zuriaren azpian azal beltz-beltza ezkutatzen du! Arraroa ezta?



KARRAMARROEK ADINIK EZ?

Karramarroek ere kanpo-eskeletoa badute, baina hainbat aldiz berritzen dute bizitzan zehar (zaharra bota eta berria sortu). Hau da, ez dute geruzarik metatzen. Beraz, ez dute adinik; ez neurtzeko modukoa behintzat. Orain arte!



NAHIKO LISTU

Bi igerileku betetzeko adina listu ekoiztuko duzu zure bizitzan.



Gizakiak 10.000 usain bereizten eta gogorarazten ditugula esaten da.



Intsektu batzuek usaimen-zentzumena antenetan daukate. Papiak adibidez, 60 kilometrotara usain dezake.

✓ Tximela haundienak 30 zm zabalera du.

✓ Dastamena gizakiak duen zentzumenik primitiboenetarikoa da. Dastamenaren beharra daukagu, osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen janariak eta edariak bereizteko.

✓ Badakizu 4 urtean behin ilea aldatzen dugula gizakiok?

MARKOS ETA ZUHAITZ NESKA

A

uuu!

Non nago? Ziztatu egiten du! Zer da hori? Ahots polit bat dator goitik. Baina... ZUHAITZ ERRALDOI BATEN GAINEAN NAGO!

Kaixo! Ni Markos Mendikuti naiz, baina Mendikuti deitzen didate. Kasu hau oraindik ikertzen ari naiz. Gaztea nintzela ezagutu nuen, zehazki 11 urterekin. Adi-adi egon...

Momentu horretan asko beldurtu nintzen, zuhaitz hori Eiffel dorrea baino handiagoa zen, ez zen normala. Enborraren hasieratik landareak zeuden. Dena berdea ikusten zen. Ahotsa lehen baino gogorrago entzuten zen. Bat-batean, pauso bat txarto eginez hasi nintzen jausten goiko puntatik.

– Auuu! Mina, ama mina!

Nire ama ahalik eta bizkorren etorri zen.

– Markos! Ondo zaude, maitea?- esan zuen. – Tira, ondo zaude.

Auuu! Gora begiratu nuen eta konturatu nintzen goiko literatik jausi nintzela. Etxolatik atera nintzen eta... Zuhaitzan nengoen! Buelta bat ematea erabaki nuen, eta horrela untxiak bilatuko nituen. Pila bat denbora pasa ondoren, somatu nituen untxi asko zuhaixka baten atzeko aldera joaten. Begiratzera joatea erabaki nuen.

AAAHH! Atzera bota nintzen. Neska bat hilda zegoen, eta gainera, landarezkoa zen. Berrito begiratzera AAAAAAAAHHH!

Begiak ireki zituen. Korrika hasi nintzen, jangelara heldu arte. Beldurrez, gertatutakoa azaldu nion aitari.

– Ja, ja, ja. Tira! Eseri gosaltzera- esan zidan.

Kakaoa edan ondoren, gailetak bukatu eta bi napolitana jaterakoan Optimist egitera joan nintzen. Plast! Uretara jausi nintzen. Barre egiten hasi nintzen. Neri begiraten zeudela sentitu nuen. Behera begiratu nuen eta... HOR ZEGOEN NESKA! Txipli-txapla ura mugitzen nengoen. Txalupa ziztu bizian etorri zen. Txalupara igo nintzen, dardarka. Ezin nuen hitz egin, beldurra gorputzean sartuta nuen. Jatera joan nintzen. Oraindik ez zitzaidan beldurra pasatu.

Maleta egin nuen, joan behar ginen-eta. Itsasontzian igo eta... Zuhaitza lakutik atera zen bizkor-bizkor. Ontzia hartuz, goraka eramane zigun. Begiak itxi nituen, kolpe handi bat hartu nuen buruan-eta.

Auuu!

Non nago? Ziztatu egiten du! Zer da hori? Ahots polit bat dator goitik. Baina... ZUHAITZ ERRALDOI BATEN GAINEAN NAGO! Itxaron, ametsa bezala da! Ahotsak beste hizkuntza batean hitz egiten duela ematen du. Ahhh! Zuhaitza atzeraka botatzen hasi zen. Jausten hasi nintzen. Kasualitatez zotzen erara sartu nintzen uretara, eta ez nuen minik hartu.

Begiak irekitzerakoan gurasoak nituen ondoan:

Ez dakigu zer gertatu den...

Ospitalean nengoela azaldu zidaten. Baina eurek ez zuten ezer. Ontziaren gidaria nire ondoan zegoen. Ohetik altxatu nintzen eta galdetu nion ea zer gertatu zen.

Ez... Azaldu... Inoiz... Zer... Gertatu... Den... Inori... Inori... INOIZ!- errepikatzen hasi zen ohiuka. Gurasoek begiak tapatu zizkidaten. Kostatu egiten zitzaion hitz egitea.

Egun horretan bertan hil zen. Baina gaur heldu da sekretua ateratzeko momentua. Konfidantza dago. Baina, ez naiz geldituko. Ez... Ikertuko dut. EZ NAIZ GELDITUKO! INOIZ!



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

KASIKABOBOAK

AOIZ

